

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

2396

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 11koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabetuen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egiteko 2022-2024ko dirulaguntzen deialdian laguntza jaso duten erakunde onuradunen zerrenda.

Dirulaguntza publikoak ematean nahitaezkoa den publikotasun-printzipioa betetze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabetuen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egiteko 2022-2024ko dirulaguntzen deialdiak 7.11 artikuluan ezartzen du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez argitaratuko dela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian deialdi horren babesean emandako laguntzen onuradun izan diren erakundeen zerrenda, eta jasotako zenbatekoak zein diren eta EGIFek finantzaketan parte hartzen duela adieraziko da. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak erabaki bidez onartu zuen deialdi hori, 2022ko irailaren 13an egindako bilkuran.

Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea EAEko kualifikazio apaleko gazte langabetuen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egiteko 2022ko ekitaldian emandako dirulaguntzen erakunde onuradunen zerrenda, eta bertan ondo zehaztea espediente-zenbakia, erakunde onuradunaren izena eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, ebazpen honen I. eranskinean jasotakoaren arabera.

Bigarrena.– Berariaz jasotzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Europako Gizarte Funtsak elkarrekin batera finantzatzen dutela, 2014-2020 aldirako Gazte Enplegurako Programa Eragilearen esparruan eta/edo EAEko 2021-2027 aldirako EGIF Programa Eragilearen esparruan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 11.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

2023ko maiatzaren 22a, astelehena

ERANSKINA

Espediente zk.	Erakunde eskatzailea	Dirulaguntza, eurotan
2221001	CPES Otxarkoaga BHIP	228.960,00
2221004	CPES Centro Formación Mendibil	76.320,00
2221005	CPIFP Peñascal LHIPI	771.945,00
2221009	CPES Ortzadar BHIP	228.960,00
2221010	Fundación Adsis - Gasteiz	232.140,00